

## FAMILIA, LEHEN ELKARTE SINESTEDUNA

Sinestea, bizimodu jakin bati ekitea da; eta bizitzen lehen urteetan eta familian ikasten denez, senitartean bizi du gizakiak lehen elkarte sinesteduna. Familian transmititzen zaie seme-alabei Jainkoa beraiekin dela, beren ezkutuko txokoan, lanean eta nekean, poztasunean, oinazean, arrakastetan eta porrotetan. Bakardadean eta jendetzan aurkitzeko gaitasuna kutsatzen dio eta besteei bizitza errazteko eta Jainkoaren Erreinua, denok zorioneko egiten gaituen bizimodua, eraikitzeko bultzada ematen.

Eta familia elkarte horrek hobeto egingo du beste familia, gizabanako edo gizatalderekin bat egin eta elkarte handiagoa osatzen badu, bihotz-berritu eta ibilbidea atseginago bihurtuz, Horrela konpartitzen da bizitzarako egitasmoa, bakarkakoa nahiz taldekoa, eta indarra ematen, behar denean elkar zuzenduz eta beti elkarri amore emanaz eta guztion onerako Espirituaren sustapena onartuz.

Familian jadesten da maitasun eta samurtasunezko zeinuak, besteen onerako sakrifizioak, esku-zabaltasunak eta erdibanatzea gauzatzeko ohitura. Familia bizitzan, gainera, txikitatik ikasten da zaintzen, barre egiten, lan egiten eta atsedean hartzen. Jainkoa, besteengana jaurtitzen gaituen eta etengabeko opari bihurtzen gaituen bultzada dela jakin behar dute haurrek.

Ikastetxea ere, haurren hezkuntza erlijiosoaren osagarri da, baina alde aurretik oinarri sendorik, erne dadin, gurasoek ongarritutako lurrik ez badute, lasten uzten dute bertan behera Jainkoarekiko komunikazioa.

Familiaren oinarria maitasuna da; maitasuna familian bizi izaten da, beste hainbat oinarri ere bete dadin, kide bakoitzak bere nortasuna gara dezan eta oinarrizko beharrez aurre egin diezaien. Kide guztien behar materialak –fisikoak, aterpea, jatzia, jatekoa, atsedena- aseta daudenean, ezinbestekoa da bestelako beharrez ere arduratzea, esate baterako:

Maitatu eta maitatua izan: Nork bere burua maitatua sentitu eta maitasuna adierazten ikasi. Jainkoarekiko hartu-emanera ere maitasunezko istorioa da, eta adierazten eta ospatzen denean, bihotza poztu egiten du ta familia bizitza sustatu. Haurrei Jainkoaren maitasunaren inguruak entzuteak segurtasuna ematen die; beste batzuen alde otoitz egiteak senidetasuna kutsatzen die; erdibanatzeak elkartasun eta zuzentasuna irakasten die. Jainkoa beraien barruan dela eta bere maitasunaz biltzen dituela entzunez oheratzeak beldur guztiak uxatzen dizkie eta bihotza pozten, beren barruan Jainkoa bizi dela sentitzen baitute. Jainkoari beraiengatik eskerrak emateak bizitzarako beren autoestimua eta segurtasuna gehitu egiten du. Jainkoak maite dituela jakiteak, Haren eskuetan jartzearen gozamenak dakarkie. Helduoi gauza bera gertatzen zaigu Jainkoarekiko hartu-emanen: beste batzuekin konpartitzen dugunean, sendotasuna jadesten dugula fedean eta zuzentasunaren eta Jainkoaren Errainuaren eraikuntzaren aldeko borrokan. Eta familiak, berez, denon sendatzeko gaitasunak ditu.

Baliozkoak izan: Batzuek nahiz besteek, gainerakoen lana baloratu; gauza txikiak eskertu, maiz adieraziz; eta, txikitatik, familia bizitzan denok garelako baliozkoak irakatsi, denok eskaintzen dugulako zerbait, edo materiala, edo afektiboa, edo hartu-emanekoa... Bakoitzak bere egitekoa du familia den 'makineria' horretan eta zehaztu egin beharra dago, batzuek nahiz besteek, etxean biltzen diren adin batekoek eta besteek, beren onena atera eta familiari eskaini diezaioten eta familiatik kanpoko munduari. Familia bizitza segurtasun eta autoestimua iturri izan daiteke edo guztiz kontrakoa, bakoitza berez dena baloratzen ez bada eta izatasun guzti hori familian proiektatzen ez bada. Eta gai erlijiosoan gaudenez,

eskerrak eman behar dizkiogu otoitz egitea, ekitaldi solidarioren baten parte hartzea eragin duenari edo norbait edo zerbait oroitarazi digunari. Ebanjelioak konpromisora bultzatu dituen seme eta alaben bitartez hartu izan da familian hainbat gizarte konpromiso. Horrela baliozko sentitzen dira guztiak, zuzentasuna eta Jainkoaren Erreinuaren eraikuntza bizi dute.

Burujabeak izan: Burujabetzaren balioa, hau da, familiak kideen burujabetza sustatzea, gizabanakoei osasuna dakarkien ezaugarria da. Hartu-emanen gauden gizakiak gara; bat egiteko jaio gara, bai, baina, aldi berean, gutariko bakoitza izaki bakar eta errepikaezina gara eta hori sustatu egin behar du familiak. Seinale txarra, “klanetik klonak ateratzen direnean”. Familiak desberdintasuna bultzatu eta aberastasun bezala bizi behar du. Bakoitza delako ezaugarri, karisma, balio jakin batzuekin jaiotzen da. Familiak lagun egingo dio kide horri, hazi eta gara dadin, beharbada besteena bezalakoa izango ez den bere bizitzako prozesua eta prozesu espirituala bizi dezan.

Kide izan: Geuretarren artekoa garelako sentitu behar dugu, faltan botatzen gaituztela, beren bizitzako zati garelako, kultura eta bizimodu jakin batekoak. Baina familia bizitzak beste pertsona batzuekin hartu-emanen jartzen gaituzten, sozializatzen gaituzten, osatzen gaituzten taldeetako kide izaten ere laguntzen digu. Elizako, koadrilako, ikastetxeko edo parrokiako kide izateak pertsona bezala aberastu egiten gaitu. Familiak elkaturik otoitz egiten duenean, harreman estua eta berezia sortzen da, bizia eta hurkotasuna areagotzen duena eta berri ona hots egitera bidaltzea dakar, kide bakoitza bere misioa bizitzera eta berri ona beste batzuei kontatzera bultzatzen du. Familian kideek elkarri barkamena eskatzen diotenean, hartu-emanak onbideratu egiten dira eta lokarriak estutu. Eta hor da umorea ere; familian elkarrekin barre egitea da gauzarik osasungarrienetakoa. Nork bere burua ez du hain serio hartu behar; norbere akatsez barre egitea komeni da, besteek zalantzan jartzea, suszeptibilitate eta umore txarrik gabe.

Kristauoi dagokigunez, Elizako, Jainkoaren seme eta alaben familia handiko kide ere bagara. Eta ezin gara Jesusekiko elkartasun estuan bizi, gizadi bereko, Jesusek bere senitartetzat hartu zuen familia bereko anai-arrebengana bidaliak ez bagara eta gizakiarentzako askapenaren eta zuzentasunaren aldeko konpromisoaren mandatari ez bagara.

Bikotekideek, Jainkoak beraien arteko maitasunean zerikusia duela sentitzen duenean, antzeman egiten zaie, adierazi eta seme-alabei transmititzen diete eta hauek, beti lagunduta bizi direla, bizia otoiztu, bedeinkatu, komentatu, zalantzan jarri eta ospatu egiten dela sentitzen dute. Eta kasu askotan, guraso gazte hauek bizi izan dute Jainkoarekiko bategitea haurtzaroan, familia erlijiosoa. Gainera, fedea bizitzeak balio eta aldarte solidario, komunikatibo eta anaikorrean iraunarazten ditu, Jainkoaren Erreinua hemen eta orain sortzera bultzarazteaz batera. Eta, gainera, beren bizia, fedea eta konpromisoa konpartitzeko aukera ematen dien elkarteak badute, errazago sentituko dute elkarrekin hazteko bultzada, bakoitzak bere estilo pertsonal eta bakarrari eutsiz.

Artikulu hau idazten ari naizenean, lagun baten bilobaren “bataio zibilera” joateko gonbitea jaso dut.

*Mari Patxi*